



Kukaña da kaiko karmenetako jarduera arrakastatsuenetako bat. **📷 JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN**

Guardetxea omenduko dute kaiko karmenetan, jai giroan murgiltzeko

Uztaila aurrera doa, eta, horrekin batera, hastear dira kaiko Karmengo jaiak, ohiko legez, egitarau zabal batekin. Betiko jardueri eutsi diete, baina zenbait berritasun ere badituzte aurten; besteak beste, itsasontzi batetik arituko dira bertsotan.

📍 Beñat Parra Rodriguez

Dena prest dute kaiko Karmengo jaietako jai batzordeko kideek, datorren ostegunetik igandera auzoa jai giroan murgiltzeko: goizetik gauera, haur, gazte zein helduentzako jarduera ugari antolatu dituzte, aspertzeko astirik ez izateko. Aurten, Guardetxeo kideek botako dute txupinazoa, ostegunean: «Auzoan behar dugun guinea da, eta azken urtean egindako lana aitortzeko modua da», nabarmendu du jai batzordeko kide Ander Muruak.

Hori guztia antolatzeko lana, ordea, ez da makala, jai batzordeko kideak azaldu duenez: «Hamar bat pertsona gabiltza jai batzordean modu aktiboan, eta urritik daramagu jaiak antolatzeko bilerak egiten. Ez da erraza, hamar izanik, gauza asko egin behar ditugulako eta adostasunetara heldu behar dugulako gure artean, baita ere».

Jaien antolaketarako oztopo nagusia, ordea, erakunde publikoen aldetik dator, Muruak nabarmendu duenez: «Kaian izanik, udala ez ezik, Eusko Jaurlaritza ere sartzen da eskumenen kontuan, eta erabiltzen dugun lurzorua-ren metro koadro bakoitzeko ordaindu behar dugu». Hori «dirutza» dela aitortu du, eta, gainera, Jaurlaritzaren «atzetik» ibili behar izan dutela: «Euren erantzuna ez da batere azkarra izan, eta horrek urduritasuna sortu digu». Hala ere, azkenean, jaiak behar bezala antolatzea lortu dute aurten ere: «Aurrera goaz».

Berritasunekin datoz

Jai batzordeak zenbait berritasun pres-tatu ditu aurtengo jaietarako. Alde bate-



LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA

**Gora Kaiko
Karmengo jaiak!**



Euskaraz jardun eta lantzeko talde ezberdinak ditugu:
erretiratuak, alfabetatzea, titulu homologatuak (A1, A2, B1, B2, C1, C2), autoikaskuntza, mintzamina...



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-21 99 07



legazpi6@legazpi6.eus

tik, ostiraleko Gazte Egunean, sagardo dastaketa egingo dute, estreinakoz: «Alde Zaharreko Gazte Asanbladaren eta jai batzordearen artean antolatu dugu, eta sagardo kupelak edukiko ditugu jai gunean», nabarmendu du Muruak.

Bestetik, larunbateko bertso saioa ere berritasuna da, izan ere, berezia izango da, jai batzordeko kidearen ustez: «*Isturiz* litsasontzitik arituko dira bertsotan Peru Aiartza eta Andoitz Urdapilleta; polita izango da». Horrez gain, bere horretan berritasuna ez bada ere, bigarren urtez antolatu duten pilota txapelketa ere hizpidera ekarri du Muruak: «Jaien aurretik hasten da eta jaien asteburuan bertan bukatu, eta oso harrera ona izan du, aurten ere».

Bestalde, kontzertu eskaintza indartsua dute aurten Karmengo jaiak, eta, horren harira, musika taldeekin «eskertuta» agertu da jai batzordeko kidea: «Karmengo jaietan jo nahi dute, eta erraztasunak jartzen dizkigute». Era berean, ez dira faltatuko, noski, ohiko jarduera arrakastatsuak: kukaña, gazte bazkaria, danborrada eta abar.

Horrela, kaiko karmenak Donostiako auzoetako jairik jendetsuenetako bat direla eta, horrek jai batzordearentzat «lan karga are gehiago» suposatzen duela aitortu du Muruak, bereziki, protokoloak garatzerako orduan. Horregatik, auzotar eta donostiar oro jaietan parte hartzera animatu ditu, baina «errespetuz»: «Etorri ondo pasatzera, eta errespetatu jaiak aurrera ateratzeko lanean gabiltzanak!». ●



JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

OSTEGUNA 16

10:00

Aita Mariri lore eskaintza.

16:00

Buruz buruko II. Pilota Txapelketako finalerdiak, Trinitate plazan.

18:30

Haur danborrada.

19:00

Erraldoiak eta buruhandiak.

19:30

Txokolate eta sardina jana.

20:00

Txupinazoa.

20:30

Kontzertzuak: La Jodedera eta La Txama.

23:59

Gazte txupinazoa.

OSTIRALA 17

10:30

Puzgarriak.

11:00

Eguneko zentrora bisita, erraldoiekin.

JUANXO
TABERNA

ATZO GAUR BIHAR
1945

Tel.: 943-42 74 05
Embeltran kalea, 6, Donostia

11:30

Txotx irekiera eta topa.

12:00

Erromeria: Gari eta lñakiren eskutik, sagardo kupelekin.

12:30

Erraldoi eta buruhandiak.

Pintxo lehiaketa.

14:30

Gazte bazkaria.

17:00

Txiki-txita.

II. Joserrita Korkonada saria.

18:00

Elektrotxufla elektrotzaranga.

18:30

Holi festa.

18:45

Txokolate jana.

19:00

Pasai txaranga.

Kukaña.

19:30

Sardina jana.

22:00

Zezensuzkoa.



JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

22:30

Kontzertuak: Zeatikez, Bengo eta Maruxak.

LARUNBATA 18

10:00

Artisau azoka.

12:00

Erraldoiak eta buruhandiak.

Kantujira, Portaletatik hasita.

Peru Aiartza eta Andoitz Urdapilleta bertsolariak, *Isturiz* / itsasontzirik.

14:00

Herri bazkaria.

Ondoren, Anuk eta Elene.

16:00

Buruz buruko II. Pilota Txapelketako finala, Trinitate plazan.

18:00

Helduen danborrada.

19:00

Txokolate jana.

19:30

Sardina jana.

Kukaña.

22:00

Zezensuzkoa.

22:30

Kontzertuak: The Lio eta Iratzar erromeria.

ELKANO-URDANETA

Ozeanoen aurkikuntza

2025/12/04 — 2026/10/04

EUSKAL ITSAS MUSEOA MUSEO MARITIMO VASCO GIPUZKOA Kultura

23:45

Ekitaldi feminista.

IGANDEA 19

08:00

Lasko txaranga, Trinitate plazatik abiatuta.

11:00

Mutxikoak.

11:30

Harri jasotze eta aizkora erakustaldia: Xabat Olaizola, Iñigo Zabala eta Jon Arizmendi.

12:00

Gazta dastaketa: Beloki Mendia gaztandegia.

12:30

Berakatz erromeria ibiltaria.

13:00

Tortilla txapelketa.



JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

16:00
Erraldoiak eta buruhandiak.

16:30

Haurren mojito txapelketa.

17:30

Helduen mojito txapelketa.

19:00

Pasai txaranga.

22:00

Zezensuzkoa.

22:30

Kontzertua: Itzal erromeria.

Oiartzun

● Gozotegia: Ijentea, 2 - Tel.: 943-42 62 09 ● Lantegia: Jai Alai, 6 - Tel.: 943-29 09 07
 ● www.pasteleriaoiartzun.com ● obrador@pasteleriaoiartzun.com

**E
N
B
A
T
A**

ENBATA
DONOSTIA

Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943424797 - 609314962
 enbatadenda@gmail.com www.enbata.eus

50

ILAZKI EUSKALTEGIA

HABEK diruz lagundua
HADE EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gora Karmengo jaiak!

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus